



Bi eskualdeetako 307 korrikalarik hartu dute parte Behobia-Donostian

LEHENAK ▶ Hassan Ait chaou gizonetzkoetan eta Mertxe Egiguren emakumezkoetan ▶

PARTE-HARTZEA ▶ Bi eskualdeetatik, iaz baino 31 korrikalari gutxiago iritsi dira helmugara ▶ 2-3



Bi eskualdeetako 307 korrikalarik korritu zuten; irudian, korrikalariak Groseko azken banpan. ESTITXU IMAZ

BERASTEGI ▶

Kultur Astearen baitan, omenaldi beroa eskaini diote herritarrek Txomin Jakakortexarenari

Kale bati bere izena jarri diote eta bi liburu argitaratu dituzte Berastegiko apaiz euskaltzalearen omenez ▶ 6

NEREA LIZARTZA



Udala «gustura» Babarrun Asteak emandakoarekin

TOLOSA ▶ XX. Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa Josu Carabelos eta Francisco Javier Basañezen errezetak irabazi du ▶ 4

MIKEL TELLERIA ▶ IDAZLEA

«Mota guztietako 87
idazleren inguruan
hitz egin dut liburuan»

‘Tolosako idazleak’ aurkeztuko du
gaur, 20:00etan, udaletxean ▶ 5

**LANGILEAK
BEHAR DIRA**

TELEFONIA MUGIKORREKO
DENDA BATERAKO

Orange

TOLOSA

Kontakturako telefonoa: 618 846 993

BEHOBIA-DONOSTIA. ESKUALDEKO SAILKAPENAK ▶

Aduna.

1:42:30 Altuna Olano, Iñaki (7449)
2:11:40 Igerabide, Beñat (11540)
1:39:18 Prieto Martínez, Mikel (5323)

Albiztur.

1:28:50 Arandia Aranguren, Gorka (2069)
1:24:37 Arandia Aranguren, Xabier (1298)

Alegia.

1:58:06 Arratibel Vitoria, Andoni (10561)
1:43:21 Azpillueta, Ibon (6659)
1:39:58 Bordaegaray, Olatz (5759)
1:20:22 Elizondo Leiva, Ruben (687)
1:45:14 Fernandez, Miren Belen (7110)
1:57:47 Fernandez Juan, Socorro (9797)
1:09:45 Garm Ibarbia, Juan Mari (61)
1:29:49 Gonzalez Vazquez, Santi (3164)
2:03:21 Guerrero Lasa, Jone (10717)
1:31:31 Lampre, Juan Martin (3487)
1:44:23 Olarabal Iradi, Ion (6854)
1:33:47 Olarte, Fco Javier (3344)
1:51:48 Puente, Jose Luis (8661)
1:57:50 Saiz Juan, Oscar (9807)
1:29:34 Sobron, Diego (2271)
1:23:59 Ugartemendia, Unai (1367)
1:30:06 Usabiaga Berstain, Iñaki (2351)
2:01:27 Zubillaga Mañeru, Jaione (10514)

Alkiza.

1:54:48 Altuna Saizar, Jon (8893)
1:20:05 Aranzabe Saralegi, Urko (625)

Altoz.

1:23:21 Murua Balerdi, Mikel (994)
1:14:05 Murua Gorostidi, Iñaki (181)

Ametzeta.

1:26:17 Artola Jauregi, Garikoitz (2361)

Añoeta.

1:18:13 Aranzabe Urkizar, Valentín (455)
1:22:55 Arrieta Gorostiaga, Manex (1156)
1:22:55 Arrieta Gorostiaga, Unai (1157)
1:33:20 Aweba, Mikel Aingeru (6012)
1:34:55 Aierbe Gallurralde, Jabi (5170)
1:37:19 Garmendia, Jesus Mari (6978)
1:31:39 Inza Lizartza, Iñaki (2829)
1:21:59 Irazusta Etxeberria, Mikel (997)
1:23:41 Irazusta Karmela (1234)
1:28:20 Loidi, Jesus (2460)
1:26:11 Puras, Jesus Mario (1840)

Asteasu.

1:37:47 Agirre Uzkudun, Xoxando (5028)
1:18:50 Aierza Sarasua, Juanak (543)
1:30:44 Altuna Royo, Jose Ramon (2744)
1:34:29 Aranburu, Joseba (4065)
1:23:26 Arriarte, Jesus Mari (1344)
1:28:28 Beotide Tapia, Ion (2337)
1:18:40 Calvo Estevez, Fernando (499)
1:34:23 Calvo Estevez, Jesus (3391)
1:34:18 De la Romana, Javi (4014)
1:42:46 Esnaola Iraola, Luis (8343)
1:28:08 Etxeberria, Jose Mari (2096)
1:36:42 Ezkerra Otero, Andoni (6938)
1:53:40 Goenaga, Imanol (9635)
1:31:45 Ibarbia Beloki, Oier (3534)
1:42:18 Inza Usabiaga, Alex (7390)
1:47:14 Iraola Elosegi, Jokin (8449)
1:33:32 Irazu, Xosé Mari (6179)
1:37:46 Irazu Iraola, Iñaki (5027)
1:47:08 Iruretaioiena, Eneko (8431)
1:18:38 Jimenez Grandes, Josean (530)
1:43:28 Mujika Arregi, Luis Mari (6386)
1:23:51 Narbarte Otaegi, Igor (1496)
1:47:14 Ormelaia Alkorta, Iosu (8450)
1:42:46 Otáegui, Joseba (8344)
1:18:23 Otegi Aldai, Txomin (505)
1:44:08 Otegi Aldai, Amaia (7313)
1:25:49 Roteta Pagadizabal, Oier (2272)
1:40:47 Txapartegi, Joseba (8345)

1:42:46 Txapartegi, Joseba (8345)
1:23:30 Usandizaga, Jon (1427)

Berastegi.

1:39:29 Goienebea, Fermin (7045)
1:53:14 Lujanbio Agirre, Eli (9935)
1:40:10 Malkorra Saizar, Mikel (7200)
2:01:31 Martin Aztiria, Olaia (11072)
1:21:20 Matxinea Lecea, Jose (745)
1:19:59 Saizar Matxinea, Iker (770)
1:47:46 Ugartemendia, Jose (8975)
1:19:37 Ugartemendia, Iosu (735)

Berrobi.

1:33:30 Aurka Zapirain, Inigo (5259)
1:19:20 Madina Aizkorbe, Ibai (810)
1:31:45 Odriozola, Juan Jose (4200)
1:29:12 Plazaola, Gregorio (4527)

Bidegoian.

1:33:42 Beloki Dorronsoro, Eneko (4634)
01:38:05 Eiola Azurmendi, Naiara (5505)

Hernalde.

1:44:12 Fernandez, Fco. Javier (8681)
1:38:25 Leunda Goñi, Ibaso (5012)

Ibarra.

1:40:06 Agirrezabala, Jose Luis (7351)
1:36:22 Alipostes Nogales, Iñaki (4138)
1:27:08 Alzate Gotia, Andoni (1601)
1:23:55 Aseginolaza, Inigo (1789)
1:52:09 Basterretxea, Rafael (8251)
1:30:12 Del Villar, Elias (2904)
1:45:46 Ezetza Iñurrria, Mikel (5857)
1:34:32 Esnaola, M. Pilar (3914)
1:26:22 Garmendia, Jose Angel (1467)
1:42:52 Goikoebea, Jokin (5213)
1:22:02 Gomez Mora, Expedito (1067)
1:25:06 Gonzalez, Eduardo (1396)
1:23:32 Gordoje, Fernando (1202)

1:24:47 Iglesias Iturriz, Ramon (1610)
1:42:37 Iglesias Iturriz, Anton (5397)
1:21:02 Lasa Muñagorri, Luis (874)
1:48:03 Lasa Otamendi, Itziar (8227)
1:40:44 Maiza, Maria Pilar (5044)
1:29:36 Ortiz de Zarate Calvo, Igor (2768)
1:48:04 Ortiz de Zarate, Oihana (8230)
1:34:46 Oialuce, Juan Carlos (3777)
1:14:48 Olasagasti, Ramon (236)
1:58:10 Reboredo, Susana (9821)
1:19:51 Vicente Artieda, Iban (617)
1:34:18 Zubelzu Jaka, Eujenio (3697)

Irura.

1:51:18 Alcalá Ortiz, Carlos (9420)
2:00:42 Amendarain, Javier (10414)
1:56:17 Artola Ezaguirre, Xabier (9101)
1:37:47 Diez Garrido, Jose Andres (6984)
1:29:42 Isasa Lersundi, Pablo (2356)
1:44:11 Lizaso Etxeberria, Andoni (8562)
1:42:22 Oiarra Zalakain, Aitor (5815)
1:50:01 Otermin Parra, Arrate (7891)
1:24:33 Zabalegi, Joseba (1606)
1:17:11 Zubeldia, Fernando (356)

Leitza.

1:29:41 Artola Mabrain, M. Miguel (2794)
1:44:34 Hernandezena, Garbale (5928)
1:30:39 Irazoki Ezkurdia, Cristobal (2229)
1:30:41 Irazoki Ezkurdia Fernando (2234)
1:20:29 Juntorena, Aitor (665)
1:50:01 Razkin Calderon, Javier (7890)

Lizartza.

1:42:31 Altuna, Iker (8051)
1:38:26 Lopelegi Arozeta, Maitane (4987)

Orendain.

1:22:49 Aranburu Eskisabel, Igor (1066)
1:37:52 Arregi Urdupeletta, Idoia (5789)



11.739 korrikalari irten ziren gutzira. HITZA

Tolosa. 1:40:18 Alzupua Arragi, Xabier (6803)
1:45:33 Aiestaran Arozeta, Felix (7056) 1:33:14 Alonso Uranga, Juan Jose (4486)
1:20:37 Aizpuru Santesteban, Unai (795) 1:41:36 Alonso Uranga, Andres (6525)

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA ▶

307 irabazle eskualdean

Villabonako Hassan Ait Chaou izan zen bi eskualdeetako lehena gizonetakoan, Behobia-Donostian; emakumezkoetan, Mertxe Egiguren tolosarra; iaz baino eskualdeko korrikalari gutxiago izan dira

IÑIGO TERRADILLOS

Lasterkariaren festa berezia ospatu zen igandean Donostian, Donostia-Behobia lasterketaren 42. edizioa, hain zuzen. Urtero bezala, milaka korrikalari atera ziren, 11.739, hain zuzen, eta horietatik ia guztiak, 11.719 lasterkarik egin zuten bat helmugarekin. Horietan guztietan azkarrena, gizonetakoan,

Chema Martínez izan zen, ordu bat 3 minutu eta segundo bateko denborarekin. Bere atzetik sartu ziren, Hugo Van den Broek eta Guillermo Arnedo. Emakumezkoetan, berriz, Elena Moreno izan zen lehena, ordu bat 13 minutu eta 28 segundo-bateko denborarekin. Bere atzetik, Iratxe Aranburuk eta Alizia Romerok gurutzatu zuten helmuga.

Eskualdeko datuei dagokionez, gizonetakoan Hassan Ait Cahou billabonatarrak lortu du eskualdeko lehena izatea bigarren urte jarraian. Ordu bat 8 minutu eta 50 segundo behar izan zituen ibilbidea betetzeko. Emakumezkoetan, berriz, Mertxe Egiguren tolosarra izan da eskualdeko lehen emakumezkoa. Bere denbora ordu bat 28 minutu eta 32 segundo-

koa izan zen. Parte-hartzeari dagokionez, pasa den urtean kopuruak gorantz egin bazuen ere —338 izan ziren gutzira—, aurtengo edizioan 307 izan dira gutzira, 31 gutxiago, beraz.

Parte-hartzaile horien guztienez, ohi bezala, arpegi ezagunak ere ikusi ahal izan ziren. Jose Mari Iturralde idazle tolosarra, esaterako; han izan zen baita ere, Abraham Olano txirindulari ohia, aurrekoetan bezala, emaitza onarekin amaitu zuten, Abraham Olano txirindulari ohia, aurrekoetan bezala, emaitza onarekin amaitu zuten, Abraham Olano txirindulari ohia, aurrekoetan bezala, emaitza onarekin amaitu zuten.

parte eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrak ere bai, besteak beste.

Giro ona izan zen herenegun ohi bezala ibilbidea igarotzen den puntuetan, eta bereziki Donostian. Hala asko izan ziren lasterkariak korrika ikustera herturatu ziren zaleak. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuten ere —euria egin zuten, hezetasun handia zegoen eta haur eta geroz izan omen zuten korrikalariak— tenperatura nahiko atsegina izan zuten lasterkan aritzeko.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Gobernu Batzarak, 2006ko urriaren 30ean, Klausula Administrazioaren agria onartu zuten, Tolosa Bide-Seguratasunaren Hobekuntzarako eta Txarrena Auzoko Sarbideko Galtzadaren Konponketa egiteko proiektua exekutatzeko.

- 1.- Helburua.- Tolosa Bide-Seguratasunaren Hobekuntza eta Txarrena Auzoko Sarbideko Galtzadaren Konponketa.
- 2.- Lizitazioaren zenbatekoa.- 225.859,75 € (BEza bane)
- 3.- Lanak egiteko epea.- 3 hilabete
- 4.- Espedientea ikusteko.- Copitec (Gudari kalea 8, beheal); telefona: 943 65 40 28 Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66
- 5.- Behin-behineko fidantza.- 4.517,95 €.
- 6.- Behin betiko fidantza.- Adjudikazio-zenbatekoaren %4.
- 7.- Enpresa-saikapena.- G.TALDEA 6.AZPITALDEA e.KATEGORIA

8.- Eskaintzak egiteko tokia eta epea.- Tolosa Udaltaldeko Sarrera Erregistrotan, plaza Zaharra, 6-B-n, 20400 Tolosa, 2006ko abenduaren 11a, eguerdikio ordu bata (13:00) arte.

Tolosa, 2006ko azaroaren 10ean
ALKATEA

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Gobernu Batzarak, 2006ko urriaren 30ean, Agintari 47ko "DYA"ko Eraikina Eraisteko proiektua exekutatzeko Klausula Administrazioaren agria onartu zuten.

- 1.- Helburua.- Agintari 47ko "DYA"ko Eraikina Eraistea
- 2.- Lizitazioaren zenbatekoa.- 42.800,88 € (BEza bane)
- 3.- Lanak egiteko epea.- Hilabete eta erdi
- 4.- Espedientea ikusteko.- Copitec (Gudari kalea 8, beheal); telefona: 943 65 40 28 Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66
- 5.- Behin-behineko fidantza.- 1.720 €.
- 6.- Behin betiko fidantza.- adjudikazio-zenbatekoaren %4.
- 7.- Enpresa-saikapena.- C.TALDEA 1. edo 4.AZPITALDEA c.KATEGORIA

8.- Eskaintzak egiteko tokia eta epea.- Tolosa Udaltaldeko Sarrera Erregistrotan, plaza Zaharra, 6-B-n, 20400 Tolosa, 2006ko abenduaren 11a, eguerdikio ordu bata (13:00) arte.

Tolosa, 2006ko azaroaren 10ean
ALKATEA

Nekane Caballero
Lda Col 3429

■ Aholkularitza juridikoa:
zibil, penal eta administrazioa
■ Higiezin zerbitzuak

Andia kalea, 1 • 1C • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldariak behar dira ospitaleetan eta ikastetxeetan.
943 31 37 82.
Gidariak behar dira Erakunde Publikoetan.
943 31 37 82.
Administrazio langileak behar dira Anoetan, Errenterian, Irunen eta Heranian. Telefono zenbakia: 943 31 37 82.



Gutzira 11.719 iritsi ziren helmugara. HITZA

1:19:32 Altuna Martinez, Iñigo (737)
1:25:48 Aranzegi Elordi, Antton (3678)
1:56:04 Arbillaga Lakunza, Javier (9564)
1:38:27 Arozena Beldarrain, Juan (4988)
1:28:57 Arozena Lasa, Jon (2533)
1:58:05 Arregi Telleria, Onintza (10562)
1:42:13 Arriue Gabillondo, Naiara (5836)
1:55:12 Arriue Gabillondo, Beñat (8317)
1:47:12 Arruaga Leikuona, Arantxa (8616)
1:49:39 Arlota Oñamendi, Pedro (8900)
1:27:24 Azkue Arrastoa, Jose Luis (2103)
1:17:08 Beldarrain, Jose Mari (362)
1:31:12 Beloki Alkorta, Iñigo (4782)
1:55:30 Beloki Alkorta, Joseba (10140)
1:31:25 Belza, Jose Miguel (2867)
1:41:11 Bengoa Ansa, Aitor (5742)
1:33:24 Calvo, Jose Angel (3019)
1:26:38 Carrillo Gallardo, Javier (1640)
1:18:51 Civico Hernandez, Mikel (616)
1:18:36 Conde Ropero, Miguel (485)
1:28:33 Diaz Azkolain, Jon (2339)
1:36:58 Dorransoro, Juan Antonio (5039)
1:34:29 Egidar, Juan Jose (5344)
1:43:54 Egiguren Agirre, Ainhoa (6407)
1:28:32 Egiguren Iraola, Merve (1994)
1:39:05 Elizalde Chasco, Elisabet (5689)
1:39:34 Etxeberria, Jokin (6598)
1:35:12 Etxeberria, Martin (4579)
1:25:10 Etxepaia, Jon (1275)
1:32:56 Ezeizabarrena, Ane (3316)
1:17:17 Ezeizabarrena, Luis (368)
1:20:35 Ezeizabarrena, Mikel (805)
1:42:17 Galarza, Jon Ander (6023)
1:38:49 Garro, Antton (7431)
1:26:45 Goenaga, Xabier (2030)
1:35:30 Gokoetxea, David (5307)
1:49:38 Gokoetxea, Guillermo (8898)
1:27:56 Gonzalez Ceberio, Iñaki (2662)
1:24:04 Gonzalez Irazusta, Eñanitz (1739)
1:42:24 Gorria, Jose Javier (7201)
1:37:02 Goya Arrese, Ana (4259)
1:19:50 Goya Gaztañeta, Pabti (608)

1:21:12 Grandes Vicario, Iñigo (1291)
1:49:41 Gurrutubaga, Asier (9648)
1:55:29 Gurrutubaga, Jesus Mari (10141)
1:42:40 Iraola Ferrero, Joaquin (7674)
1:23:58 Iraola, Jose Antonio (1281)
1:40:45 Irastorza Arregi, Iñigo (4887)
2:01:27 Iriarte Iribar, Garbñe (10513)
1:52:48 Isasí Elosegi, Igor (9203)
1:52:36 Iturralde Uria, Jose Mari (8263)
1:24:02 Iturria, Jexux (1524)
1:46:41 Iturzaeta Arbillaga, Iñigo (7849)
1:35:08 Izaguirre Ormazabal, Patxi (4818)
1:38:35 Jauregi Irigoien, Aitor (7124)
1:50:22 Jauregi Irigoien, Xabier (9680)
1:25:36 Kamara Ebenike, Karlos (1730)
1:39:33 Labaien Arabaolaza, Iñigo (6880)
1:36:15 Labaien Ibarra, Idoia (3896)
1:39:27 Lakunza, Carlos (5778)
1:29:48 Landaburu, Gorka (2419)
1:31:03 Larrea Llamas, Asier (2880)
2:07:04 Lasa Galarza, Benito (10666)
1:18:58 Lasa Goenaga, Asier (516)
1:25:08 Lasa, Juan Mari (1571)
1:37:47 Lastra Manzanal, Jokin (5672)
1:46:08 Lazkano, Miguel Angel (5996)
1:36:23 Lesaka Garmendia, Kepa (3610)
1:20:41 Lizarralde, Joxi (710)
1:27:34 Lizartza Colomo, Mikel (4496)
2:04:54 Lopez de Murrillas, Loreto (11269)
1:30:53 Lopez Moreno, Jose Luis (3221)
1:20:36 Luluaga, Jose Manuel (674)
1:44:05 Luluaga, Altziber (5457)
1:30:12 Manzisidor, Gregorio (2428)
1:21:01 Marin Maiza, Ion (837)
1:45:06 Martin Muñoz, Victor (8244)
1:37:02 Martinez Etxeberria, Zigor (4256)
2:00:22 Mateos, Montaña (10986)
1:32:36 Mateos Murua, Xabier (4291)
1:20:04 Maurice, Luc (1230)
1:23:20 Mayorca Alonso, Santiago (1142)
1:40:51 Mokoroa Arriuri, Arantxa (4728)
1:21:34 Murua Ustariz, Iñigo (778)

1:54:49 Oiarzabal, Gabriel (7918)
1:14:14 Pagola Gurrutubaga, Iker (189)
1:13:05 Olano Manzano, Abraham (147)
2:03:21 Pagola Larra, Jesus (10718)
1:29:29 Perales Anton, Mikel (4453)
1:35:58 Perez Arratibel, Lorenzo (4869)
1:40:12 Saizar Arostegi, Joxemi (5754)
1:26:31 Sevillano Amatriain, Aiar (1972)
1:20:48 Tena Ponce, Serafin (729)

1:36:23 Toledo Zabala, Ainara (3760)
1:22:53 Unanue Larreta, Xabier (963)
1:51:44 Unanue Larreta, Sebas (9238)
1:46:31 Urdapilleta, Xabier (6859)
1:35:24 Uriarte Ezenarro, Borja (3429)
1:35:35 Urizar Larreta, Xabier (3763)
1:40:20 Urkola Odriozola, Iñaki (5355)
1:44:48 Urkola Amundarain, Aitor (7641)
1:28:31 Uretxabakia, Joserra (1993)

1:35:29 Uretxabakia, Patricia (3554)
1:23:05 Usabiaga, Joseba (1107)
1:19:31 Valverde Macho, Leonbo (809)
2:00:23 Yarra Odriozola, Iker (9853)
1:15:01 Zalakain Erbiti, Egortz (229)
1:36:49 Zubillaga Galarza, Mikel (3894)
1:33:21 Zufriaga Garcia, Ricardo (5062)

1:33:56 Soto Labandina, Oscar (3537)
1:53:26 Ugarteandia, Olatz (9401)
1:41:26 Uretxabakia, Isidro (7167)
1:41:11 Uruzola Zorriaran, Iker (7123)
1:39:34 Valderrama, Jose Miguel (6916)
1:55:08 Vergara, Jose Javier (9708)
1:55:08 Vergara Zuzanabar, Ander (9709)
1:26:29 Villa Inurrria, Ainar (1927)
1:29:18 Zaldúa Brit, Aitor (2654)
1:42:31 Zugasti Diaz, Maria (7448)

Villabona.
1:08:50 Aitchaou, Hassan (42)
1:18:59 Ansa Irazusta, Ander (681)
1:31:43 Ariño Sanchez, Alberto (4287)
1:18:04 Arrebe Sarasola, Imanol (478)
1:26:19 Artola Amenza, Jose Luis (1674)
1:49:49 Begiristain, M. Jesus (7574)
1:39:07 Beobide Mujika, Aitor (6813)
1:37:35 Bidaurreta, Aitor (6247)
1:26:29 Buitron Escorza, Rafa (1001)
1:53:26 De la Canal, Ismael (9403)
1:32:59 Eguren Oiarzabal, Gorka (4445)
1:26:46 Eloi Mendizabal, Iñaki (1647)
1:52:41 Galarza Irazusta, Julian (9999)
1:25:10 Garaialde Estanga, Iker (1488)
1:23:33 Garziarena, Iñaki (1217)
1:32:17 Gaztañeta, Andoni (4288)
2:01:13 Gomez, Jose Javier (10897)
1:33:34 Gurrutubaga, Joxe (5526)
1:53:59 Gurrutubaga Ugarte, Alazne (8830)
1:35:29 Hornero Serrano, Victor (5050)
1:30:15 Iraola Iraola, Unai (2717)
1:51:09 Larena, Nuria (9757)
1:19:29 Majano Diaz, Juan Manuel (602)
1:16:37 Manso Blazquez, Iker (314)
1:49:14 Mavano, Juan Manuel (8786)
1:56:09 Olasagire, Xabier (9340)
1:34:13 Paniagua Gonzalez, Iñigo (6323)
1:48:22 Perez, Jorge Francisco (9247)
1:24:15 Petisco Royo, Oscar (1846)
1:12:23 Piedra, Enrique (127)
1:35:02 Romeo Jauregi, Julian (4947)
1:52:41 Rosa Fresneda, Marian (9937)
1:55:57 San Sebastian, Iñaki (8994)

Zizurkil.
1:20:21 Agirrezabalaga, Xabier (644)
1:39:20 Aizpurua Eiola, Axier (6690)
1:30:24 Amado Leiva, Luis (2590)
1:28:29 Arriabarrena, Josu (2182)
1:38:34 Arruti Otaegi, J. Manuel (5664)
1:22:07 Etxeberria, Iñaki (880)
1:35:56 Etxeberria, Jon Ander (4351)
1:27:45 Gomez Valle, Alvaro (2019)
1:18:05 Gonzalez Loitegi, Ibon (437)
1:38:03 Herrera, Txema (4649)
1:13:24 Inarraigire, Iratze (392)
1:53:31 Inarraigire, Pabti (9421)
1:13:01 Izaguirre Etxabe, Xabi (143)
1:16:39 Lampre, Jon Joseba (316)
1:36:50 Mendizabal, Mirari (4574)
2:11:52 Odriozabala, Maitte (11535)
1:26:53 Puyadena Urkola, Eneko (2310)
2:11:52 Sanchez, M. Carmen (11536)
1:54:13 Seara Tejada, Xabier (8913)
1:35:03 Zendoia, Gorka (4795)

Parte-hartzaileak denera.
307

Esualdeko lehen gizonetako.
Hassan Ait Chou (Villabona)

Esualdeko lehen emakumetako.
Merve Egiguren (Tolosa)



Esualdeko 307 korrikalarik egin zuten ibilbidea. HITZA

HASSAN AIT CHAOU ▶ KORRIKALARIA

«Aurten gehiago prestatu dut neure burua, eta horregatik marka hobea egitea pentsatzen nuen»

Hassan Ait Chou villabonatarak lortu du esualdeko lehen gizonetako izatea Donostia-Behobia lasterketan. Ez da lehen aldia hori lortzen duena, iaz ere, lehendabizikoa izan baitzen. Bere laugarren parte-hartze hau nolako izan den kontatu digu.
Zorionak. Esualdeko lehen gizonetako izan zara. Gustura, ezta?
Gustura nago eta lehengo urte-

ko denbora hobetzea ere lortu dut, baina marka hobea egitea espero nuen.
Ez zaitu guztiz asetu, beraz.
Ez. Iaz ere, aurten beste urtetan baino gehiago entrenatu dut, ondo aurkitzen nintzen, eta horregatik espero nuen emaitza hobea. Uste dut orohar, sentsazioa hori izan dela, hau da, asko ziren emaitza ondu nahi zutenak, baina ez dute lortu. Eguraldiak zeresan

handia izan du horretan, euririk, hezetasun handiak eta haizeak. Haizearekin, batez ere, indar gehiago egin behar duzu, eta nekea handiagoa da.
Ze emaitza espero zenuen?
Ordu bat eta 6 minutura jeistea nahi nuen, hori zen nire helburua, baina ez da posible izan. Ea hurrengoan lortzen dudana.
Hurrengo urtean?
Bai. Ahal badut, behintzat. Lasterketa honetan parte hartzen

hasten zara, eta ezin duzu geratu, urtetik urtera maila bat igotzea exijitzen baitoizu zure buruari. Hori gertatzen da.
Igandekoa nolako izan zen?
Taldea on bat topatu nahi izaten duzu lasterketa lagunduta egiteko. Igandeko kasuan, gainera, asko laguntzen du jende gehiagorekin joatea haizearengatik-eta babesteko. Taldea ona topatu eta ia lasterketa osoa lagundurik egin nuen. ◀



M. SOROA

MERTXE EGIGUREN ▶ KORRIKALARIA

«Oso gustura nago, izan ere, ez nuen horrelako emaitza egiterik espero»

Mertxe Egiguren tolosarra esualdeko lehen emakumea izan zen herenegun Behobia-Donostia lasterketan. Hirugarren aldian da bertan parte hartu duena, eta oso gustura dago lortutako emaitzarekin. Berarekin izan gara biharamunean.
Zorionak. Esualdeko lehen emakumea izan zara. Gustura, ezta?
Bai. Oso gustura nago. Ez nuen

hainbeste egiterik espero. Oso emaitza ona izan da niretzat.
Noiz hasi zinen lasterketa prestatzen?
Iraila bukaeran hasten naiz lasterketa prestatzen. Normalean asteazken zehar 3 egunetan edo joaten naiz korri egitera, eta irailtik aurrera gehiagoan egiten dut.
Hirugarren aldian aurtengoa. Urteatik urtera, gainera, marka hobetu duzu.



HITZA

Bai. Hala da. Lehendabizikoa aldian, ordu bat eta 46 minututan egin nuen; bigarren aldian, ordu bat eta 34 minututan, eta azken honetan, ordu bat eta 28 minututan. Dezente jeitsi dut lehenengotik.
Hurrengo urtean ere sailkapeneko goiko postuetan ikusiko al zaitugu?
Ez dakit datorren urtean ere ariko naizen. Hori urteak aurrera egin ahal jakingo dut.

Nik beti bezala jarraituko dut entrenatzen eta iraillean edo, ikusiko dut.
Zer esan nahi du zuretzat lasterketa honek?
Niretzat lagunak egitea esan nahi du. Izan ere, entrenatzen hasi nintzenetik jende asko ezagutu dut, beti berdina izaten garelako. Horrekin gertatzen naiz. ◀

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

TOLOSA ▶ BABARRUNAREN ASTEA

NAIARA GARZIA

Amaitu da aurtengo Tolosako Babarrunaren Astea eta orain ondorioak ateratzeko tenorea iritsi da. Udala «gustura» gelditu da emaitzarekin. «Jendeak ekitaldi guztietan parte hartu du. Gainera aurreikusita zegoen programazioa aurrera eraman da eta pozik gaude», esan du Olatz Oiarzabalek, Garapen Ekonomiko eta Enplegu Saileko ordezkariak.

Babarrunaren Astearen azken eguna izan zen igandekoa eta honen barruan ospatu zen II. Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa Donato Larretxea arantzarrak irabazi zuen. Saria ez zuen azkarrena izateagatik irabazi. O'Toole azkarragoa zela argi utzi baitzuen, baina honek egindako akatsak aprobetxatuz munduko aizkolari azkarrenean bilakatu zen.

Euskal Herriko eta atzerriko aizkolariek erabiltzen dituzten aizkoren neurriak ezberdinak dira. Australiarrenak, adibidez, handiagoak dira. Hau dela eta, O'Toole bukaeran trabatuta gelditu zen eta denbora asko galdu zuenez, Larretxeak akats hau australiarri aurrea hartzeko aprobetxatu zuen. Lehenengo finalerdian O'Toole, Nazabal, Olasagasti eta Coffey aritu ziren lehian. Bigarren finalerdian, berriz, Arrospide, Lasa, Senosiain, Etxebeste eta

Udala «gustura» geratu da jendearen parte-hartzearekin

Donato Larretxea arantzarra bihurtu zen munduko aizkolari azkarrena

Larretxea. Azkeneko momentura arte irabazlea australiarra izan arren, Larretxeak irabazi zuen ustekabean.

XX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoarekin hasi zen Babarrunaren Astea azken eguna, goizeko 8:00etan, ferialekuan. Arratsaldeko 13:00etan izan zen sari banaketa eta txapela etxean gelditu zen, Josu Carabelos eta Francisco Javier Basañezek erreza suertatu baitzen irabazle. Gure Kaiola elkarteak antolatutako lehiaketan 22 partaidek hartu zuten parte. Epaimahaia-ri dagokionez, sukaldari ospetsuak ferialekuan izan ziren haien iritziak ematen. Hauen artean ziren, Pedro Subijana, Hilario Arbelaitz, Ramon Rotea, Juanjo Mendioroz, Inaxio Muguruza, Iñigo Lavado eta Alberto Elorza. Partehartzaile guztiek aurten irabazle suertatu den babarrun alea erabili zuten, ohikoa baino txikiagoa.

10,30ean IX. Artzain Txakur Lehiaketa ospatu zen lurrea- mendiko belazeetan. 6 artzain txakurrek hartu zuten parte,

eta txapela Abadiñora joan zen Kepa Ardantza eta bere txakurra Izar izan baitziren irabazleak. Ramon Larrañaga azpeitiarraren ustez «lehiaketa uste bezala joan zen, eta ez zen inolako ezustekorik izandu», abadiñotarra baitzen faborittoa. Hala ere, alde aurretik irabazle zela izan den jakitea artzain txakur lehiaketetan ez da erraza, «txakurrak nola erantzungo duen erabat jakiterik ez baitago. Egun txarrak eta onak izaten dituzte, gu bezalaxe». Parte-hartzaileen artean, Euskal Herriko txapelduna (Txiki, Abadiñokoa), Gipuzkoakoa (Lista, Azkoitiakoa), Araba eta Oñatikoa (Bixkor, Iarduiakoa), Iparraldekoa (Alai, Ioldikoa), Nafarroakoa (Txiki, Aresokoa) eta aurtengo irabazlea Izar (Abadiño) zeuden.

Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren sari banaketaren ondoren, herri bazkaria ospatu zuten ferialekuan bertan. 70 kilo babarrun baino gehiago erabili zituzten bazkaltzera hurbildu ziren 500 pertsonen jaten emateko. Bazkaria Auzolagun catering zerbitzuak antolatu zuen eta babarrunez gain, aza, saheskia, odolkia, txorizoa, hirugiharrea eta langostinoak ere ez ziren faltatu. Bazkariari amaiera gozoa emateko, Ezeiza Etxeak postrea eraman zuen.

Egitarrarekin jarraituz, 17:00etan Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa ospatu zuten Zezen Plazan eta Zuberoako musikaz gozatzeko aukera ezinhobeia izan zuen Berdura plazara hurbildu zenak, Jean Bordaxar Laukotearen eskutik. Babarrun Asteari amaiera emateko *Nomadak Tx* dokumentala bota zuten Leidor aretoan.



Herri bazkarian 500 pertsona inguru bildu ziren eta denei jaten emateko, 70 kilotik gora babarrun behar izan zituzten. N. LIZARTZA



Herri bazkariaren ondoren Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa ospatu zuten Zezen Plazan. N. LIZARTZA



XX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketan txapela etxean geratu zen, Josu Carabelos eta F. Javier Basañezek irabazi baitzuten. N. LIZARTZA



Larretxeak ezustean irabazi zion O'Toole australiarri. N. LIZARTZA

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA
Tel.: 943 65 19 93

MIKEL TELLERIA ▶ IDAZLEA

«Mota guztietako 87 idazleren inguruan hitz egiten dut»

Mikel Telleriak 'Tolosako idazleak' bere azken liburua aurkeztuko du gaur, 20:00etatik aurrera, udaletxean

ESTI EZEIZA

Lanbidez arkitektoa bada ere, idaztea asko gustatzen zaio Mikel Telleriari (1945, Tolosa) eta gaur, bere azken lana, *Tolosako idazleak* izenekoa, aurkeztuko du udaletxean, 20:00etan. Ohikoa ez bada ere, lan hau ez da salmentan jarriko, doan banatuko du. Nahi duenak, ekitaldian eskuratu ahal izango du ale bat.

Zer aurkituko du irakurleak liburu honetan?

Mota guztietako 87 idazleren inguruan hitz egiten dut liburu honetan. Egunen batean idatzi edo liburu bat argitaratu zutenak sartu ditut. Baina ez naiz konparaketetan eta sartu. Herriko zurrumurru gisa idatzi ditut, bakoitza non jalo zen, non seme-alaba zen eta horrelako gauzak kontatzen ditut. Ez ditut idazleen ezaugarri literarioak aipatzen; hori bai, bakoitzak idatzitako lan guztiak aipatzen ditut.

EZAUGARRI KOMUNA

«Batez ere gizonezkoak izan dira Tolosako idazleak, emakume oso gutxi argitaratu dute liburu bat»

ZURRUMURRUAK

«Ez ditut idazleen ezaugarri literarioak deskribatzen, herriko zurrumurru moduan azaltzen ditut gauzak»

750. URTEURRENA

«Tolosaren urteurrena dela eta, 1256tik 2006 bitarteko lanak eta idazleak hartu ditut aintzat»

Norentzat zuzendua dago liburua?

Tolosarrentzat, eta Tolosa eza-gutzen dutenentzat egina dago.

1256tik 2006ra bitartekoak bakarrik hartu dituzu kontuan?

Bai, Tolosaren 750. urteurrena dela eta, erreferentziatzen urte horiek hartu ditut. Aitzakiatzat hartu dut urteurrena ekarpen bat gehigo egiteko.

Nondik sortu zitzaizun hau idazteko ideia?

Amezketan eta Tolosa bitartean kokatuta dagoen sorginei buruzko liburu bat egiten hasi nintzen, eta horri buruzko informazioa bilatzen ari nintzen bitartean idazle tolosarren izenak topatu nituen. Hala, 10-12 aurkitu nituen, eta asko zirela iruditu zitzaidan. Horregatik, pentsatu nuen, polita izango zela 750. urteurrenerako, Tolosako idazleen bilduma bat osatzea.

Ba al dute ezaugarri komunik Tolosako idazleek?

Batez ere gizonezkoak direla. Emakume oso gutxi daude, batez ere iraganekoetan. Eta gizonezkoetan berriz, apaizen talde handi bat dago. Baina ulergarria da, orain erraza baita liburu bat argitaratzea, baina lehen ez.

Euskaraz ala gaztelaniaz idatzi dute gehiago?

Oreka dago, euskaraz ere asko idatzi da. Nobelagileek ez horrenbeste, baina antzerkian eta bat baino gehiago euskaraz idatzirik daude. Hala ere, ia lan guztiak Euskal Herrian zentratzen dira.

Idazle guztiak Tolosan jaiok dira?

Ia denak, hala ere, azken orrietan lekutxo bat egin diet, kanpoan jaio baina Tolosarekin lotura handia izan zuten idazleak: Lizardi eta Iñaki Linazasoro, besteak beste.

Orokorrean, idazle onak izan al ditugu Tolosan?

Bai, asko egin dira ezagunak.



E. EZEIZA

Esaterako, Uxola, antzerki munduan oso ona zen. Aitzol, Xabier Laskibar, Emeterio Arrese...

Idazle profesionalak gutxi izan dira...

Bai, hemen oso gutxi daude: Uria eta Linazasoro izan litezke batzuk, baina orokorrean ez ziren profesionalak.

Denbora asko behar izan al duzu hau idazteko?

Duela bi urte hasi nintzen, eta pixkanaka osatzen joan naiz, lanarekin uztartuz. Denbora librean horrelako gauzak egitea gustatzen zait. Dokumentazioa pilatuz joan eta hauek antolatzen joan naiz.

Argitaratutako aleak doan emango dituzu?

Bai, guztira 1.200 aterako ditugu eta hauetatik 800 laguntzaileei emango dizkiet. Gainontzekoak, gaurko aurkezpenean eta lagun artean banatuko ditut.

Zein erreferentzia izan dituzue idazleak nortzuk ziren aurkitzeko garaian?

Auñamendik sei liburukitako bilduma bat du, eta bertan Euskal Herriko idazle guztiak agertzen dira. Hala, hemendik

ZENBAIT DATU ▶

Izenburua. *Tolosako idazleak*.
Egilea. Mikel Telleria.
Orri kopurua. 107.
Aurkezpena. Gaur, 20:00etan Udaletxean.
Ale kopurua. 1.200.

banan-bana, Tolosan jaiokak direnak atereaz joan naiz. Honez gain, beste liburu batzuk ere erabili ditut hau osatzeko. Ustez idazle guztiak sartu ditut, agian norbait faltako da, baina...

EZBEHARRA ▶

Hiru lagun arin zauritu izan dira sute baten ondorioz

Sei pisuko eraikin batek hartu zuen su atzo goizaldean, Errementari kalean

E. EZEIZA

Sei pisuko eraikin batek su hartu zuen atzo, eta bizilagun guztiak aterarazi behar izan zituzten. Kea arnastuta zauritu ziren bi lagunak. Lanean ari zen ertzain bat da hirugarrena.

Jaurilaritzako Barne Sailak emandako azalpenen arabera, 00:25ak aldera sortu zen sutea Errementari kaleko 9. atarian. Eraikin guztia hustu behar izan zuten. Zaurituak Tolosa bertako Asuncion erietxera eraman zituzten.

GIZARTEA ▶

Kataluiako egoera izango da mintzagai, gaur iluntzean

E. EZEIZA

Kataluniako hauteskundeak eta honen etorkizuna aztertuko dituzte gaur Uzturre Fundazioak antolatutako saioan. Gai honen inguruan mintzatuko diren hizlariak ondorengoak izango dira: Jordi Sanchez Picanyol, Jaume Bofill Fundazioko zuzendaria eta Joan Guiltarti Agell, Catalunya Oberta fundazio-ko lehendakaria.

Ekitaldia irekia izango da. Hau, iluntzeko zortziretan hasiko da, eta Tolosako Kultur Etxean gauzatuko dute.

OIARTZUNGO VII.ESKALADA TXAPELKETA HERRIKOIA

AZAROAK 18
Elorsoro ikaldegian

Izen ematea:
943 49 25 52
9:00etatik 10:00etara egunean bertan

Antolatzailea: hitza

BERASTEGI ▶ KULTUR ASTEA

MADDI SOROA

Berastegiko Kultur Asteak aurrrera darrai kultur ekintzekin. Ostiralean hasi eta asteburuan ekintza ugari izan ondoren, datorren ostiralera arte atsedena izango dute herrian.

Pasa den ostiralean Txomin Jakakortexarenari buruzko erakustaldiaren inaugurazioarekin ekin zioten Kultur Asteari. Larunbatean, haurren txanda izanik, *Ice Age II* filma ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Arratsaldean, Urepele elkarteak futbol txapelketako finalak jokatu zituzten. Baita, Angel Cuerdoren Mongoliako esperientzia eza-gutzeko parada izan ere.

Herenegun, berriro ere, Txomin Jakakortexarena izan zen protagonista Berastegin, haren aldeko hainbat ekintza burutu baitziren. Goizean, pleno herriko berezia egin zuten udal-txean herriko kale bati bere izena emateko. Aipatu, lehen mojen egoitza zegoen ingurua aukeratu zutela herritarrek Jakakortexarenaren izena ezartzeko. Ondoren, Jakakortexarenaren inguruko bi libururen aurkezpena egin zuten. Meza-oren ondoren, Jakakortexaren hilibira bisita egin zuten, txistulari eta dantzariekin.

Omenaldi beroa jaso du Jakakortexarenak herritarren eskutik

Bere biziaren inguruko bi libururen aurkezpena eta herriko kale bati bere izena jartzeaz gain, hilibira bisita egin zuten



Meza ondorenean, Txomin Jakakortexarenaren hilibira bisita egin zuten herritarrek omenaldi gisa. HITZA

Sustrai sendotako apaiz sutsua

Txomin Jakakortexarenaren inguruko bi liburu aurkeztu zituzten herenegun Berastegiko udaletxean. *Txomin Jakakortexarena (1906-1993)*, *Bidegileak* eta *Txomin Jakakortexarena Bertso eta Olerkiak*, hain zuzen.

Jakakortexarena, 1906an jaio zen Berastegin. Bertan eman zuen haurtzarora eta bertan hezi eta hazia izan zenez, herritik jaso zituen hizkuntzarekin batera, herri-sena, izaera, ohiturak, sentimena eta baita sinesmena ere. Pilotan ere ikasi zuen, hamar urteak bete aurretik herriko gaztetxeen artean pilotaririk onena izatera iritsi zelarik.

Bere lehen ikasketak herrian bertan egin ondoren, apaiz izateko bokazioa nabaritzen, herriko apaizarekin hasi zen latina ikasten. Bi urte geroago Andoaingo, Saturrarango eta Gasteizko seminarioetan osatu zuen bere apaiz irakaskuntza. Ikasketak amaitu ondoren, 1932ko udaberrian apaiztu zen. Harrrezkero, hamaika arrisku beldurgarri ikusi zituen, Gerra Zibileko garaian, esaterako. Azken parroikia, Buenos Airesko Mones Cazon herrian izan zuen.

Behartsuen apaiz ezezik, euskaltzale sutsua ere izan zen Jakakortexarena, besteak beste. ◀



Udaletxean egin zen bi liburuen aurkezpeneko unea. HITZA

IBARRA ▶

Etzi amaituko da jaietako argazki erakusketa

San Bartolome 2006ko argazkien kopiak eskuratzeko aukera dago

ERREDAKZIOA

Etzi amaituko da Kultur Etxean ikusgai dagoen Ibarako Udakultura eta Gazteria sailak antolatutako 2006ko San Bartolome jaietako argazki-erakusketa.

Aurtengoa koadrila egunak 25. urteurrena ospatu duenez, erakusketa arreta berezia eskaintzen zaio ospakizunari, eta bereziki, urteurrena izan dela eta, plazan koadrila guztiek elkarrekin ateratako argazkiari.

Erakusketara hurbiltzen direnek bertan aurkitzen diren argazkien kopia eskatu ahal izango dute. Kopia eskakizuna, prestatu diren eskari-orriak betez egin beharko dute Kultur Etxeko harreran, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara

GRIPEA ▶

Gripeari aurre eginez Leaburu-Txaraman

ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako Udak gripearen aurkako txertoa jartzeko aukera eskaini die herritarrei. Txaraman gaur ezarriko da txertoa 09:45ean osasun gunean. Leaburun, berriz, etzi 09:45ean osasun gunean.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ALEGIA ▶ KULTURA



Azaro Kulturalaren baitako bidegorriko martxako momentu bat. Ondoren, ginkana egin zuten. HITZA

Erakusketen, musika eta pailazoen astea

Loatzo eguna larunbatean izango da, eta musika eskolak hartzen dituen herri guztietakoak hurbilduko dira bertara

NEREA URBIZU

Aste honetan zehar hainbat ekitaldi daude prestatuta Azaro Kulturalaren baitan. Gaurtik hilaren 24ra bitarte Kultur Etxeko sarrerako bilera gelan eskulan ikastaroetan egindako erakusketa izango da, besteak beste, 19:30ean. Ordu berean Antxon Iturrizarekin *Euskal mendizaletasunaren aitzindariak* izeneko proiektioa izango da.

Etzi, aldiz, beste erakusketa bat izango da: *Ibaialde*, hain zuzen. Hau hilaren 23ra arte egongo da Kultur Etxeko batzar aretoan. Ostiralean Korri, Xalto eta Brinko pailazoen saioa izango da. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako ekitaldia da honakoa. 17:30ean

hasiko da eta batzar aretoan izango da barre egiteko aukera. Igandean, aldiz, Txintxarri eguna egingo dute.

Igandean, *Alegiko bidegorrian zehar* eginkizuna egin zuten, ondoren plazan ginkana egin zutelarik. Hasieran eurria egin bazuen ere, partaidetza «polita» izan zen, ume nahiz gurasoak izanik bizikletan.

Loatzo eguna larunbatean

Larunbatean Loatzo eguna antolatuko dute. Urtero egiten den eguna da, eta aurten Alegian izango da. Egun honen egitaraua musikarien egunarekin du lotura. Santa Zezilia egunarekin, alegia: 300 musika ikasle elkartzeara espero dute bertan. Hauxe egingo dute egunean

zehar: 11:00etan herriko trikitilariak eta txistulariak kalejiran ibiliko dira, herri guztian zehar.

11:30ean, aldiz, eskolako patioan bilduko dira denak, herri guztietakoak, hain zuzen, 12:00etan kalejira erraldoia egiten hasteko. eskolatik Larraitz auzora, handik Kalebera eta plazan bukatuko dute. Bide («erraldoi») honetan trikitixa eta txistuaz gain beste hainbat musika tresna entzun ahal izango dira. Txistulariek eskolan obra bat joko dute; dantzari txikiak bi dantza egingo dituzte, bertso eskolakoek Kaleberan bi bertso botako dituzte eta Txintxarri Txikiaren kantaren bat entzun ahal izango da.

Bukatzean hamaiketakoak emango zaie herriko plazan.

BALIARRAIN ▶ KULTURA

«Besteetan baino jende gehiaxeago etorri da»

Hilaren 26an babarrun eta gaztain jatea izango dira: txartela 17rako erosi behar da



Igandeko hamaiketakoak eta bazkaria Zartagin izan ziren. N. LIZARITZA

N. URBIZU

Kultur Astean murgilduta daude baliarraindarrak. Larunbatean haur eta gazteen-tzako tailer berezia, eta herenegun, aldiz, jubilatuen eguna antolatu zuten.

12 bat ume elkartu ziren ile-apainketa tailerlean. «Besteetan baino jende gehiago hurbildu zen herrira», zioen Juan-txo Zubeldiak, Baliarraingo kultur zinegotziak. «Askok realeko koloreak aurpegian margotzea eskatu zuten».

Hamaiketakoan dozena bat lagun bildu ziren Zartagi jate-txean. Meza nagusiaren ondoren bideo emanaldia izan zen udaletxeko kultur gelan. Bertan ikusten egon zirenek Baliarraingo aurtengo festetako irudiak izan zituzten aurrean. Horren aurretik (herriko baserri guztietako irudiak ikusi genituen).

Herriko jubilatuek Udala-ren partetik erretilu eder batzuk jaso zituzten, guztira 27

banatu zituzten. «Zertarako zen jakiteko bi gaztain eta bi intxaur jarri genituen», barre artean gogoratu zuen Baliarraingo kultur zinegotziak.

Babarrun eta gaztain jatea

Hilaren 26an babarrun eta gaztain jatea izango da. Hau Arkaitz elkarteak antolatu du. Pilotalekuan egingo den bazkaria 14:00etan hasiko da eta hau izango dute jateko: babarrunak, odolki, txorixo, aza eta sahieskiekin batera. Ondoren gaztainak, eta bukatzeko kafea, kopa eta puruak. Guztia 15 euroren truke izango da. Txartelak erosteko epea hilaren 17an amaitzen da, eta arratsalde horretan bertan bazkariako antolatzaileetako batzuk etxez etxe joango dira hauek eskaintzen.

Kanpotarren batek bazkari-joateko interesa balu, Baliarraingo udaletxera deitu behar luke, hurrengo telefono zenbakira: 943 88 90 03.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47. behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera ona.

Amezketeta, Berastegi, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar, eta abixi, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Berrobi. 3 logela, egongela,

sukaldea, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Leaburu bidean. bi solairuetan banaturiko 600 m²ko pabiloia

alokairuan, 2.500 m²ko zelaiarekin.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat ebebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.

Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera antizak. Igogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreintzeko. Garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Ebebizitza salgai oso egoera onean. Igogailu eta garajearekin.

Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, lau logela. Igogailua. Garajea. Egoera onean.

Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m². Garaje ibixiarekin.

Legorreta. Trastelekua salmantan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 14a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **16** hotzena **14** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez **HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**
 (zabalaz argitzeko, harpidetun egileko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Kultur Astearen baitan, kultur aretoan, *Gure ama hizkuntzaren jatorria* izeneko hitzaldia 20.00etan.
Alegia. Azaro Kulturaren baitan, *Euskal mendizaleatasunaren aintzindariak* proiektioa, 19:30ean Kultur Etxean, Antxon Iturrizarekin.
Tolosa. Pipaon-Herrera mendatea irteera antolatuta du Alpino Uzturre mendi elkarteak, iganderako. Recilla, Cervera eta Escamelo mendiak igoko dituzte. Izen-ematea, elkartearen bertan (943 652789).
Tolosa. Uzturre fundazioak antolatuta, Kataluniako hauteskondeetako emaitzen analisia eta eskenatoki politiko berriaren azterketa landuko dute, 20:00etan, Kultur Etxean.
Tolosa. Mikel Telleriak *Tolosako idazleak* liburua aurkeztuko du, 20:00etan udaletxean.

ERAKUSKETAK

Alegia. 19:30ean Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai, hil honen 24ra arte.
Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarriketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.
Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* Frontonen azaroaren 17ra arte.


GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Bronte, Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrek eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



2007ko egutegian ikusi ahal izango diren bi argazki; guztira 13 dira irabazleak eta Xabier Ubedaren argazki sekuentziak irabazi du saria. HITZA

Tolosa, hilabetez hilabete

TOLOSA ▶ Xabier Ubedaren argazki sekuentziak irabazi du 2007ko egutegi ofizialeko saria; bihartik aurrera jarriko dute salgai



Tolosako 2007ko egutegi ofizialeko argazkien irabazleak atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Zaharretik abiatu berrira iristeko; hori da islatu nahi izan duena Xabier Ubedak, gauzatutako argazki sekuentzian. 200 parte-hartzaileetatik, bera izan da azkenik Tolosako 2007ko egutegi ofizialeko irabazlea. Argazki zaharrak abiapuntutzat hartuta, denboraren igarotzea erakutsi du argazki sekuentzia baten bidez.
 Bihartik aurrera eskuratu ahal izango dira 2007ko egutegiak Tolargi eta Tolosa gaseko bulegoetan. Antolatzaileen esanetan, «argazki oso onak jaso ditugu, eta maila altua izan da». Hala, parte-hartzaile guztiek egutegian egotea merezi bazuten ere, hamahiruk bakarrik lortu dute. Ezaugarri bezala, aurkeztutako irudi gehienak, Tolosako hirigunean hartuak izan dira, eta ez landa eremuetan. Bestalde, joan den urteko aleak oso azkar agortu zirenez, aurten egutegi gehiago egin dituzte. Hauek, euskara hutsean idatziak daude.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...